

jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar

jarduerak jarduerak jarduerak **jarduerak** jarduerak jar

jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar

jarduerak jarduerak **jarduerak** jarduerak jarduerak j

jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar



1. Egitura.

Eleberriaren hasierako pasartea hitzaurre antzeko bat da, baina ez du lehen kapitulu-
lua osorik hartzen. Liburuaren amaieran, berriz, epilogo moduko bat dago, azken
kapitulua osorik hartzen ez duena.

- Seinala ezazu, bi kapituluetan, non hasten eta amaitzen diren hitzaurrea eta epi-
logoa.

- Denborako zer unetan kokatzen dira? Eleberriko gertakarien denbora bera al da?

- Zure ustez, zer funtzio narratibo betetzen dute? Benetan beharrezkoak al dira?

2. Eleberriaren oinarrian, mamu-istorio bat dago.

Naturaz gaindiko fenomenoei dagokienez, fantasiako narratiban beti
egon dira bi jarrera. Bataren arabera, egileak sinetsi egin behar du
mamurik badela; bestela, nekez idatz lezake narrazio eraginkorrik. Beste
jarrera guztiz kontrakoa da: mamu-kontuetan sinesten ez duen egileak
hobeto idatziko du, mamuen agerraldiak arrazoiaren aurkakoak izango
baitira, naturaz gaindikoak, eta, beraz, beldurgarriak; mamurik badela
sinetsiz gero, ordea, fenomeno naturaltzat hartuko lituzke, eta ez lirateke
hain izugarriak izango.

Data

- Solas egin: Bi jarrera horietako zeinekin zatoz bat? Zergatik?

- Zer jarrera dauka eleberraren egileak? Arrazoitu, ahal den neurrian, erantzuna.

3. Deskriba itzazu pertsonaia nagusiaren lau lehengusinen izaerak, eta esplikatu zer ikasten duen pertsonaiak bakoitzarengandik:

- Rosa

- Margarita

- Violeta

Izena

lzena Data

- Azucena

4. Deskriba ditzagun xeheago pertsonaiak. Liburuan, familiako kide bakoitzari zer musika mota gustatzen zaion azaltzen da.

- Lotu pertsonaiak eta musika motak.

- Aldera itzazu musikaren eta pertsonaiaren ezaugarriak. Erabiltzen al ditu egileak pertsonaia bakoitzaren musika-joerak haren berri emateko edo hura hobeto ulertzeko?

5. Azken xehetasun batzuk pertsonaiei buruz. Azter dezagun Violeta pertsonaia.

- Azter ezazu nolakoa den Javierren eta Violetaren arteko harremana, eta zer bila-kaera duen.

- Zure ustez, zer leku dute liburuak harreman horretan?

- Zergatik sartzen du beti hanka Javierrek lehengusinarekin mintzatzen denean?

6. Eleberria beste garai batean dago girotuta. Gainera, garai horrek alderdi askotan ez dauka zerikusirik gurearekin. Aipa itzazu garai horren eta gaur egungoaren arteko antzekotasun eta desberdintasun batzuk:

Antzekotasunak

Desberdintasunak

7. Orain ikus ditzagun irudiak. Kapitulu batzuen amaieran, irudi txiki batzuk ageri dira testuarekin batera.

- Iruzkindu irudi txiki horietako batzuk.

- Zer lotura dute testuarekin?

- Apaingarri hutsak dira ala zerbait eransten diote irakurgaiari? Arrazoitu erantzuna.



8. Azaldu nola irakurtzen duen Javierrek *Zekale artean harrapaka* liburua. Javier ohartzen da literaturak zerbait ezkutatzen duela beti testuaren atzean, eta bizitzarekin parekatzen du, bizitzak ere lehenengotan begi hutsez ikusten direnak baino gauza gehiago gorde-tzen ditu eta. Erlaziona ezazu iruzkin hori liburuko gertakariekin.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

9. Erreparatu mendozatarren eta obregóndarren arteko gatazkari:

- Zure ustez, bizitza errealean iraun al dezakete hirurogeita hamar urte bi familiaren arteko tirabirek? Arrazoitu erantzuna, 7. kapitulua kontuan izanda, esaterako.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Bibliak dioenez: «Gurasoen bekatuak seme-alabek bizkarreratuko dituzte hirugarren belaunaldiraino». Egin ezazu esaldiaren iruzkina, eta saiatu aplikatzen eleberriari. Gerta al daiteke hori beste egoera batzuetan? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....